

Koiuntura di-da batean

2017ko martxo

Aurkibidea

1. Hazkundera
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Kanpo merkataritza
5. Ingurunea
6. Aurreikuspenak

Eranskina

1. EAE %3,1 hazi zen 2016. urtean.

Kontsumoaren eta inbertsioaren arteko orekak sendotasuna eman dio EAEko ekonomiaren hazkunderari.

2. Enplegua %1,9 areagotu zen bai laugarren hiruhilekoan bai 2016an.

Eraikuntzak atzean utzi ditu zortzi urte eta erdiko galarak eta enplegu garbia sortu du.

3. KPIa 2012ko urritik inoizko tasarik altuenean dago.

Argindarraren garestitzeak igoera horren zati handiena azaltzen du.

4. EAEko merkataritza saldoa atzerriarekin berriro baliu maximoan dago.

Energiaren saldoa ez zen horren negatiboa izan eta energiaren bestelakoa positiboagoa izan zen.

5. Euroguneko herrialde guztiek BPGa handitu zuten.

Nabarmenezkoa da Espainiaren, Eslovakiaren, Txipre-ren eta Herbehereen hazkundera.

6. 2017-18rako hazkunde aurreikuspenak gorantz berrikusi dira.

Europako herrialdeen langabezia tasak jaisten jarraituko du.

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAE %3,1 hazi zen 2016. urtean

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustaten kontu ekonomikoen argitaratzeak urtarrilean ezagutarazi zen aurrerapena baieztatu du. Izan ere, EAEko barne produktu gordina %2,9 gehitu zen, moteltze arineko prozesu batean. Hala ere, 2016ko batez besteko hazkundea (%3,1) aurreko urtekoa baino bi hamarren handiagoa izan zen. Iazko azken zatian, hazkundearen osagai endogenoa areagotu zen, kanpo eskariak BPGaren gehikuntzari hamarren bat kendu zion bitartean. Atzerriarekiko oreka hori ohikoa da azken epealdietan eta hala 2015ean nola 2016an kanpo saldoaren ekarpena hazkundeari hutsala izan zen. Beste aldetik, EAEko ekonomiaren sendotasuna bai kontsumoaren atalean (%2,9) bai kapital eraketa gordinarenean (%3,2) oinarritzen da, biek hirugarren hiruhilekoko emaitza hamarrenen bat hobetu zutelako.


Gastua azken kontsumoan

Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa

**Eraikuntzaren balio erantsia**


Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzaren aldetiko analisiak ez du berrikuntza handirik erakusten aurreko hiruhilekoko osaketaren aldean, zeren industriaren (%3,0) eta zerbitzuen (%3,1) gehikuntzak antzekoak izan baitziren. Zerbitzuetako adarren artean, hazkunde erritmoa bateratzeko joera haute-maten da, alde batetik merkataritza eta ostalaritzak gehikuntza leundu duelako eta administrazio publikoari lotuagoak direnek beren bul-tzada hamarren batzuk bizkortu dutelako. Az-kenik, eraikuntza tasa positibotan eta tamaina neurritsukoan (%1,9) finkatu da, baina urrun dago oraindik beste bi sektore nagusien taseta-tik.

Zerbitzuen balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasak

**Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren b.e.**

Urte arteko aldakuntza tasa

**Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueren b.e**

Urte arteko aldakuntza tasa




LAN MERKATUA

Enplegua %1,9 hazi zen bai laugarren hiruhilekoan bai 2016an

Enpleguaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek kontu ekonomikoetan argitaratu duen informazioak %1,9an kokatu du 2016ko azken zatian lortu zen enplegu hazkundera. Tasa hori, oso aldaketa gutxirekin, iazko urte osoan zehar eskuratu zen. Izan ere, urte osoko batez besteko hazkundera balio horretan bertan kokatu zen, 2015ean lortutakoa hiru hamarrene-tan gaindituz. Horrek esan nahi du lanaldi osoko 16.000 lanpostu baliokide baino zertxobait gehiago sortu zirela azken urtean. 2016ko laugarren hiruhilekoko ezaugarriarik esanguratsuenetakoa bat eraikuntzaren enpleguak izan zuen zeinu aldaketa da, zortzi urte eta erdiz etengabe lanpostuak galdu ondoren, %0,5eko urte arteko tasa positiboa eskuratu zuelako. Lehen arloak ere lagundu zuen enplegua sortzen, baina sektore horren bilakaera oso gorabeheratsua izaten da.


Enplegua lehen arloan

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua eraikuntzan

Urte arteko aldakuntza tasa



Enplegua industrian

Urte arteko aldakuntza tasa




Industria enpleguaren bilakaera ona izan zen 2016. urte osoan zehar. Eraikuntzak bezala, urte horretan amaiera eman zion langileak etengabe galtzeko prozesu luze bati. Kasu horretan, laugarren hiru hilekoko urte arteko tasa %1,9 izan zen, 3.600 lanpostu garbi inguru direlarik. Tasa hori hirugarren hiru hilekokoan lortutakoa baino hamarren bakar bat txikiagoa da. Beraz, aldakuntza erritmoan nolabaiteko egonkortasuna hautematen da.


Berriro ere, lanpostu garbien kopururik handiena zerbitzueta jardueretan bildu ziren. Izan ere, aldakuntza tasa %1,9 izan zen eta 12.000 lanpostu berri baino gehiago sortuz. Dena dela, enplegua sortzeko sektore horren ahalmena moteldu dela hautematen da, hala urteko datuetan, 2015eko %2,6tik 2016. urteko %2,1era igaro baitzen, nola hiru hilekoko emaitzetan, apaltzeko joera hori azken epealdietan leundu den arren.

Enplegua zerbitzuetan

Urte arteko aldakuntza tasa

**Afiliazioa Gizarte Segurantz**

Urte arteko aldakuntza tasa




2017ko hasierari buruz dagoeneko eskuragarri dagoen informazioak adierazten du enpleguaren hazkunde erritmoa 2016ko amaieran eskuratu zenaren antzekoa dela. Izan ere, Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 hazi zen urtarrian eta otsailean, laugarren hiru hilekoko emaitza berdinduz. Afiliazioa berriro jaitsi da finantza adarretan, arlo horren sako-
neko eraldaketagatik, eta higiezinetan. Aitzitik, oso gorakada esanguratsuak lortu dira osasun arloan, hezkuntzan, informazioa eta komunikazioetan, eta jardura artistikoetan, beste batzuen artean.

INFLAZIOA

KPIa 2012ko urritik inoizko tasarik altuenean dago

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




Aurtengo lehen hilekoko KPI indizea %2,9an kokatu zen, 2012ko urritik adierazle horrek izan duen daturik altuena baita. Kontsumoko prezioen igoera hori bereziki argindarraren garestitze biziak eragin zuen, 2016ko abendua arte balio negatiboak jaso ondoren, urtarrilean %17,9ko hazkunde tasa izan baitu aurreko urteko hileko berarekin alderatuta.

KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	2,9	2,9
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,2	0,9
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	0,1	0,0
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	1,3	0,3
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,3	0,6
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	11,3	2,0
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	2,4	0,2
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	17,7	1,8


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Argindarraz gain, erregaiek ere lagundu zuten KPIaren goranzko bilakaera horretan, azken hilekoetan gertatu ohi den bezala. Petrolioaren upelaren salneurria 55 dolarren inguruan egonkortu bada ere, lehengai horren urte arteko aldakuntza tasa oso garrantzitsua da oraindik (%79,0), 2016ko urtarrilean balio zituen 31 dolarrekin alderatzen delako. Egonkortasun horrek pentsarazten du inflazioaren gorakada bizi hau iragankorra dela eta martxotik aurrera apalduko dela, petrolioaren garestitzearen eragina desagertuko den heinean.

Azkenik, adierazi behar da, urtariletik INEk KPIaren datuak 2016ko Oinarrian argitaratzen dituela, adierazle horren ordezkagarritasuna hobetzeko asmoz. Horretarako, aldaketak egin ditu berau osatzen duten produktuen saskian eta haztapenen egitura gaurkotu du.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,9	3,0	1,8
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,8	1,0	1,8
Edari alkoholikak eta tabakoa	1,5	1,7	1,6
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,9	1,8
Etxebizitza, ura, elektrizitatea eta beste erregaiak	7,4	7,4	2,1
Etxeko tresneria	0,7	-0,2	0,0
Medikuntza	1,2	0,7	0,9
Garraioa	7,5	7,6	4,5
Komunikazioak	2,6	2,6	-1,0
Aisia eta kultura	1,7	0,9	0,7
Hezkuntza	1,2	1,0	0,5
Hotelak, eta jatetxeak	0,9	1,2	1,8
Bestelakoak	1,7	1,4	0,6


Iturria: INE eta Eurostat.

KANPO MERKATARITZA

EAEko merkataritza saldoa atzerriarekin berriro balio maximoan dago

Atzerriarekiko merkataritza saldoaren bilakaera


Miloi euro



Atzerriarekin eginiko merkataritzaren datuek oso emaitza positiboa eskaintzen dute 2016. urte osorako. Hain zuzen ere, EAEko esportazioen balioak inportazioena gainditu zuen 6.112 milioi eurotan. Beraz, 2015eko datuaren aldean, %19,0ko gehikuntza lortu zen. Beste urtebete batez, saldo hori serie historiko osoaren baliorik gorena da eta, neurri handi batean, inportazioen jaitsierari esker lortu zen. Zehazkiago adierazita, esportazio guztien zenbatekoa 21.595 milioi eurora iritsi zen, 2014an eskuratu zen maximotik hurbil dagoelarik. Inportazioen balioa, berriz, 15.484 milioi eurokoa izan zen, kasu horretan 2015ean jasotakoa baino %8,0 gutxiago delarik.


Esportazio guztiak

Miloi euro.



Inportazio guztiak


Miloi euro.



Merkataritza saldoaren hobekuntza energia atalari zein energiaz bestelakoari esker lortu zen. Izan ere, azken hori 300 milioi euro baino gehiago handitu zen 2015eko emaitzaren aldean eta 7.693 milioi euroetara iritsi zen. Halere, eta emaitza esanguratsua den arren, oraindik urrun dago 2012-2014 epealdian eskuratu ziren balioetatik, urte horietan guztietan 8.000 milioi euroetatik gorako saldoa jaso zelako.


Energiaz bestelako saldoa

Milioi euro.



Saldo energetikoa

Milioi euro.




Aitzitik, saldo energetikoa nabarmen murriztu zen 2016an, laugarren urtez jarraian, 1.581 milioi eurotan kokatu arte, 2015eko maila baino %30 gutxiago. Petrolioaren eta gasaren prezioak izan zuen merkatzeak azaltzen du, nagusiki, jaitsiera hori, eta azken hilekoetan lehengai horien salneurriak gorantz egin duen arren, aurrezki handia ekarri du, 350 milioi euro ingurukoa 2015eko urtearekin zegoen prezioarekin alderatuta eta 1.150 milioi eurokoa, berriz, 2014ko faktura energetikoarekin erkatuta.

EAEko merkataritza bazkide nagusiek (Alemaniak, Frantziak eta Erresuma Batuak bereziki) erakutsi duten sendotasunak garraio materialaren, produktu kimikoen eta paperaren salmenta bultzatu zuten eta produktu mineralen zein metal arrunten eta beren manufakturen jaitsiera konpentsatu zuten. Izan ere, esportazio guztiak 2016an aurreko urtearen aldean gutxitu ziren arren (%-1,6), energiako ekoizkinak albo batera uzten bada, hazkundea %1,7ra iristen da, 2015ean lortutako emaitza zazpi hamarrenetan gaituz.

Esportazioen banaketa


Ehunekok. 2016



EUROGUNEKO HAZKUNDEA


Euroguneko herrialde guztiek BPGa handitu zuten

Euroguneko BPGa
Urte arteko tasa




Eurostatek argitaratu duen zenbatespen berriaren arabera, Eurogunea %1,7 hazi zen 2016ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiru hilekoetan %1,8ko gehikuntza jaso eta gero. Erritmoa zertxobait apaldu bada ere, eremu hori osatzen duten herrialde guztiek, bigarren hiruhilekoz jarraian, tasa positiboak eskuratu zituzten. Zehazkiago adierazita, Alemaniak Eurogunearenean antzeko erritmoa eskuratu zuen eta bertako BPGa %1,8 areagotu zen laugarren hiruhilekoan, 2016. urte osoan zehar erakutsi zuen egonkortasuneko irudiari jarraituz. Enplegu maila handienak eta soldaten igoerak kontsumo pribatua bultzatu zuten eta iheslarien krisiak, berriz, gastu publikoa. Bi aldagai horien bultzadak esportazioen ahultasuna konpentsatu zuen. Frantziako ekonomia, bere aldetik, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasunean oinarritu zen, eta, neurri txikiagoan, esportazioen sendotasun berrituan. Horiei esker, BPGa %1,1era iritsi zen, aurreko hiruhilekoko emaitza bi hamarrenetan gaindituz.


Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Herbehereetako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Italiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Hala ere, Euroguneko herrialdeetatik sendoen hazi zirenak Espainia (%3,0), Eslovakia (%2,9), Txipre (%2,8) eta Herbehereak (%2,7) izan ziren. Italia, berriz, nabarmentzekoa da, urte osoan zehar erakutsi zuen sendotasunagatik. Izan ere, krisia 2008an hasi zenetik, salbuespen bakarra 2010 delarik, ekonomia italiarra ez da inoiz %1,0 baino gehiago hazi.

Espainia Eurogunearen buruan kokatu zen, iazko laugarren hiruhilekoan BPGaren hazkundera %3,0ra iritsita. Tasa hori aurreko hiruhilekoko baino bi hamarren apalagoa izan zen, barne eskariaren ekarpena txikiagoa izan zelako. Hala kontsumo publikoa nola, neurri txikiagoan, inbertsioa gutxiago hazi ziren, baina kanpo eskariaren ekarpen handiagoak neurri batean konpentsatu zuen moteltze hori. Zehazkiago azalduta, barne eskariak 2,2 puntu ekarri zituen eta kanpo eskariak, berriz, 0,8 puntu. Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntza (%3,0) izan zen dinamikoena eta, industriarekin batera, aurreko hiruhilekoko hazkunde tasa gainditu zuen bakarra. Azkenik, enpleguaren gorakada %2,7ra heldu zen 2016ko azken hiruhilekoan eta lanaldi osoko 463.000 lanpostu baliokide sortu ziren azken hamabi hilekoetan. Sektoreka aztertuta, eraikuntzak lortu zuen hazkunde handiena, baina guztiek eskuratu zituzten %3,0aren inguruko gehikuntzak.

Espainiako ekonomiaren aldagai makroekonomiko nagusiak


	2015	2016	2016-I	2016-II	2016-III	2016-IV
BPG	3,2	3,2	3,4	3,4	3,2	3,0
Kontsumo pribatua	2,8	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0
Kontsumo publikoa	2,0	0,8	1,7	0,7	0,8	0,0
KFEG	6,0	3,1	4,3	3,4	2,6	2,2
Esportazioak	4,9	4,4	3,8	6,5	2,9	4,4
Inportazioak	5,6	3,3	4,5	5,4	1,0	2,3
Enplegua	3,0	2,9	3,1	2,7	2,9	2,7
Langabezia tasa	22,1	19,6	21,0	20,0	18,9	18,6
KPI	-0,5	-0,2	-0,7	-0,9	-0,2	1,0

EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

2017-18rako hazkunde aurreikuspenak gorantz berrikusi dira

Europar Batasuneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordeak neguko txostenean argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasuneko hazkundea %1,8an kokatuko da 2017 eta 2018 urteetan. Aurreikuspen berri hauek gorantz berrikusi dituzte 2016ko udaberrian argitaratu ziren datuak. Goranzko zuzenketa Europako herrialde gehienetara hedatzen da eta, halaber, azken hilekoetan ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakunde guztietan egiaztatu den joera bat da.


BPG. Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Europar Batasuna	1,9	1,8	1,8	+0,2	=
Erresuma Batua	2,0	1,5	1,2	+0,5	=
Eurogunea	1,7	1,6	1,8	+0,1	+0,1
Alemania	1,9	1,6	1,8	+0,1	+0,1
Belgika	1,2	1,4	1,6	+0,1	+0,1
Espainia	3,2	2,3	2,1	=	=
Frantzia	1,2	1,4	1,7	=	=
Italia	0,9	0,9	1,1	=	+0,1
Herbehereak	2,1	2,0	1,8	+0,3	=
Portugal	1,3	1,6	1,5	+0,4	+0,1
Beste herrialde garatu batzuk					
AEB	1,6	2,3	2,2	+0,2	+0,3
Japonia	0,9	1,0	0,5	+0,2	+0,1

Iturria: Europar Batzordea.


Alemania BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Hazkunderaren indarra kontsumo pribatuaren gastea izango da, enpleguaren hobekuntzan eta soldata nominalen igoeran sustraituta. Hala ere, inflazioaren gorakadak zertxobait apalduko du eros-teko ahalmena eta familien kontsumoa motelduko du. Inbertsioak gora egingo du, finantzaziorako kostu txikiengatik eta jarduera orokorraren sendotasunarengatik.

Ekonomiaren susperraldiak aldeko eragina dauka lan merkatuan eta enplegu tasa igoko da, langabezia tasa jaitsiko den bitartean. Langabezia maila txikienean dago 2009tik, baina oraindik krisiaren aurreko mailaren gainetik dago.

Langabezia tasa. Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Europar Batasuna	8,5	8,1	7,8	-0,2	-0,1
Erresuma Batua	4,9	5,2	5,6	=	=
Eurogunea	10,0	9,6	9,1	-0,1	-0,1
Alemania	4,1	4,1	4,1	-0,2	-0,1
Belgika	8,0	7,8	7,6	=	=
Espainia	19,6	17,7	16,0	-0,3	-0,5
Frantzia	10,0	9,9	9,6	=	=
Italia	11,7	11,6	11,4	+0,2	-0,1
Herbehereak	6,0	5,2	4,7	-0,6	-0,7
Portugal	11,2	10,1	9,4	+0,1	-0,1
Beste herrialde garatu batzuk					
AEB	4,9	4,6	4,5	-0,1	-0,2
Japonia	3,1	3,1	3,0	-0,1	-0,2

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9
Familien kontsumoa	3,1	3,1	2,9	3,3	3,4	3,1	2,9
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,2	2,0	2,4	2,7	0,8	3,0
Kapital eraketa gordina	2,8	3,3	2,8	3,4	3,7	3,1	3,2
Barne eskaria	2,8	3,0	2,7	3,1	3,3	2,7	3,0
Esportazioak	0,6	2,2	2,3	4,2	3,0	1,6	0,3
Inportazioak	0,6	2,2	1,6	3,9	3,2	1,3	0,4
Lehen arloa	13,4	1,6	24,3	11,6	2,8	-0,7	-7,3
Industria	3,9	3,3	4,9	4,8	2,4	2,9	3,0
Eraikuntza	0,5	1,6	-0,2	-0,3	2,7	1,9	1,9
Zerbitzuak	2,9	3,2	2,8	3,0	3,4	3,1	3,1
Balio erantsi gordina	3,1	3,1	3,2	3,3	3,1	3,0	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,1	3,1	2,0	3,2	3,2	2,9	3,1

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2016ko azaroa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016	2017				2017
	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,8	3,0	2,4	2,2	2,2	2,4	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,9	2,2	1,8	2,0	2,1	2,0
Familien kontsumoa	2,8	3,1	2,4	2,0	2,2	2,4	2,3
Administrazioaren kontsumoa	1,0	1,7	1,2	1,1	1,1	1,0	1,1
Kapital eraketa gordina	2,9	3,3	2,6	2,4	2,8	3,2	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	3,0	2,4	2,0	2,2	2,5	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	0,1	0,0	0,0	0,2	0,0	-0,1	0,0
Lehen arloa	4,3	4,5	0,1	2,0	-4,1	-6,2	-2,1
Industria	2,5	3,2	2,1	2,0	2,5	2,8	2,3
Eraikuntza	1,5	1,5	1,2	1,2	1,8	2,3	1,6
Zerbitzuak	2,9	3,1	2,6	2,4	2,3	2,3	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	3,0	2,4	2,2	2,3	2,4	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,7	3,0	2,2	2,0	2,0	2,1	2,1
Enplegua	1,8	1,8	1,6	1,6	1,7	1,7	1,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
Funcas	3,3	2,2	Laboral kutxa	3,0	2,3
CEPREDE	3,2	2,4	Hispalink (BEGren aldakuntza)	3,0	2,2
Confebask	3,0	2,5	BBVA	2,9	2,8

Iturria: CEPREDE (2017ko urtarrila), BBVA (2017ko otsaila), Confebask (2016ko abendua), Laboral Kutxa (2016ko abendua), Funcas (2016ko urria) eta Hispalink (2016ko azaroa) .

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,2	3,2	3,6	3,4	3,4	3,2	3,0
Kontsumo pribatua	2,8	3,2	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0
Kontsumo publikoa	2,0	0,8	2,7	1,7	0,7	0,8	0,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1	6,4	4,3	3,4	2,6	2,2
- Aktibo finko materialak	6,5	3,1	6,8	4,4	3,4	2,7	2,2
- Eraikuntzan	4,9	1,9	5,0	2,3	1,8	1,6	1,9
- Ekipamendu ondasunetan	8,8	5,0	9,6	7,4	5,7	4,2	2,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	2,9	4,0	4,0	3,2	2,0	2,4
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	2,8	3,8	3,5	2,9	2,5	2,2
Esportazioak	4,9	4,4	5,0	3,8	6,5	2,9	4,4
Inportazioak	5,6	3,3	6,1	4,5	5,4	1,0	2,3

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
AFI	3,3	2,5	Intermoney	3,2	2,3
BBVA	3,2	2,7	Repsol	3,3	2,8
Bankia	3,2	2,5	Santander	3,3	2,5
Caixa Bank	3,3	2,6	Solchaga Recio & asociados	3,2	2,4
Cemex	3,2	2,5	BATEZ BESTE	3,2	2,4
CEEM-URJC	3,3	2,3	Gobernua (2016-12)	3,2	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,1	Espainiako Bankua (2016-12)	3,2	2,5
CEOE	3,2	2,3	Europar Batzordea. (2017-02)	3,2	2,3
FUNCAS	3,3	2,4	NDF (2017-01)	3,2	2,3
ICAE-UCM	3,3	2,5	ELGE (2016-11)	3,2	2,3
IEE	3,2	2,3	The Economist (2017-02)	3,2	2,4
IFL-UC3M	3,2	2,5	Consensus Forecast (2017-02)	3,2	2,4

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,6	1,6	1,9	1,6	1,3	1,7	1,9
Txina	6,9	6,7	6,8	6,7	6,7	6,7	6,8
Japonia	0,6	1,0	1,2	0,4	0,9	1,1	1,6
Kanada	0,9	—	0,4	1,3	1,1	1,3	—
Europar Batasuna	2,2	1,9	2,1	1,8	1,8	1,9	1,8
Eurogunea	2,0	1,7	2,0	1,7	1,6	1,8	1,7
Alemania	1,7	1,9	1,3	1,8	1,8	1,7	1,8
Frantzia	1,3	1,1	1,2	1,2	1,1	0,9	1,1
Erresuma Batua	2,2	1,8	1,7	1,6	1,7	2,0	2,0
Italia	0,7	1,0	0,9	1,0	0,9	1,1	1,1
Herbehereak	2,0	2,0	1,1	1,2	1,9	2,5	2,5

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko otsaileko aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,3	2,4	2,5	2,3	4,6	4,5
Japonia	1,2	1,0	0,7	1,0	2,9	2,8
Kanada	2,0	2,0	2,0	2,0	6,9	6,7
Europar Batasuna	1,6	1,6	1,7	1,7	—	—
Eurogunea	1,6	1,5	1,6	1,4	9,6	9,2
Alemania	1,4	1,6	1,8	1,7	6,0	6,1
Frantzia	1,3	1,4	1,3	1,3	9,5	9,3
Erresuma Batua	1,5	1,3	2,6	2,7	5,1	5,4
Italia	0,8	0,9	1,1	1,2	11,5	11,1
Herbehereak	2,0	1,7	1,3	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.